

GIZARTE ONGIZATEA ETA BERDINTASUNA / Gizarte Zerbitzuak

Oinarrizko Laguntza

Auzo Unitateak herritarrek gizarte-zerbitzuetan sartzeko ateak dira. Herritar guztiei zuzenduta daude, eta haien helburua herritarren eskariak jasotzea da, bai eta haien zailtasunei lehen erantzuna eskaintzea eta gizarte-babeserako sistemetan sartzeko bidea erraztea ere. Iruñeak, gaur egun, hamabi auzo-unitate ditu, Alde Zaharrean, Txantrean, Etxabakoitzen, Zabalgunean, Ermitagañan, Iturraman, Mendillorri, Milagrosan, Arrotxapean, Sanduzelain, Donibanen eta Buztintxurin banatuta.

2012an, auzo-unitate guztien artean, 36.000 arta baino gehiago egin zituzten, hau da, duela bost urteko arta kopurua baino % 52,9 gehiago. 2012an, bestalde, 2011n baino 1.751 arta gehiago egin ziren, hau da, % 5,1 igo ziren.

Auzo-unitateetan artatutakoen kopurua

2008	2009	2010	2011	2012
23.576	25.798	34.019	34.287	36.038

15/2006 Foru Legeak ezarritakoarekin bat, Auzo Unitateek Gizarte Zerbitzuetako lau programak eskaintzen dizkiete herritarrei: *Harrera eta gizarte-orientazioa, Norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasunean dauden pertsonen laguntzeko programa, Gizarteratzea, eta Haurrei eta familiei laguntzeko programa.*

Harrera eta gizarte-orientazioko programa

Herritar guztiei zuzendutako programa da eta haien eskariak jasotzea du xede. Herritarren arazoei lehen erantzuna eskaintzen die, gizarte-babeserako sistemetan prestazioetan sartuz eta, behar izanez gero, oinarrizko laguntzako edo laguntza espezializatuko gainerako programetarako sarbidea emanez.

Udalaren gizarte-prestazioetan eta gizarte-zerbitzuen sistemako gainerako prestazioetan sarbidea bermatzeaz gain, programak bestelako helburuak ere baditu, hala nola auzo bakoitzean elkartegintza sustatzea auzokideen partaidetza eta auzoko elkartasun-sareak bultzatzeko, topaketa-guneak, sare sozialak eta boluntariatza indartuz.

Norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasunean dauden pertsonen laguntzeko programa

Iruñeko Udalak hainbat baliabide eskaintzen dizkie iruindar adinekoenei edota mendekotasunean daudenei, hainbat helburu gogoan hartuta: norberaren autonomia sustatzea, mendekotasunezko egoerei aurrea hartzea, eta laguntza ematea bere kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonen eta mendekotasunean daudenei edo egoteko arriskua dutenei, betiere beren ohiko ingurunean. Behar izanez gero, gainera, etxetik kanpoko baliabide alternatiboetan sartzeko aukera ematen du, banakako, taldekako eta izaera komunitarioko artaren bidez.

Programak hiru baliabide biltzen ditu: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ), apartamentu babestuen bost eraikinak eta etxebizitza komunitarioa.

- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ)

EELZk 6.000.633 euroko aurrekontua izan zuen 2012an, eta zuzeneko arta eskaintzen du pertsona hartzaileen etxean bertan, gehienez bi orduz egunero. 2012an, 184.222 ordu erabili ziren, 1.149 etxebizitzetan banaturik dauden 1.421 erabiltzaileei laguntza emateko. Eskatutako zerbitzuen arabera (bat baino gehiago izan daitezke, zerbitzu bakoitzeko), 2012an erabiltzaileen % 86,65ek zainketa pertsonaleko zerbitzuak behar izan zituzten; % 30,24k, elikadura-zerbitzua; eta % 3,41ek, arropa garbitzeko zerbitzua.

Zehazki, elikaduran 130.681 zerbitzu izan ziren (102.444 bazkari eta 28.237 afari), 412 etxetara garraiatuak. Menu bakoitza lehen eta bigarren plateraz osatua dago, gehi postreaz eta ogiaz, eta



jaiegunetan, platerak ezaugarri bereziak dituzte. Dietak (17 menu desberdin) erabiltzaileen beharren arabera egokituak eskaintzen dira beti: dieta diabetikoa, dieta hipokalorifikoa, dieta hiperproteikoa, etab. Arropa garbitzeko zerbitzuari dagokionez, 2012an 2.095 zerbitzu eman ziren 45 etxebizitzatan.

Bi enpresaren bidez egiten zaie zuzeneko arta erabiltzaileei: ASIMEC enpresa publikoaren bidez eta AZVASE enpresaren bidez, zeinaren kontratua 2012an luzatu baitzen.

EELZaren aurrekontua atalez atal

Zerbitzuak	Aurrekontua eurotan	Guztira
ASIMEC	1.801.394	
AZVASE	3.237.620	5.039.015
Arropa garbitzeko zerbitzua	35.291	35.291
Elikadura zerbitzua	592.717	592.717
Garraio zerbitzua	333.609	333.609
		6.000.633

- Adinekoendako apartamentuak eta etxebizitza komunitarioa

Iruñeko Udalak bost apartamentu-eraikin kudeatzen ditu adinekoentzat: Julián Gayarre, Milagrosa auzoan; Arga, Iturriotzeaga plazan; Txoko Berri, Tulebrasko monasterioaren kalean; Iturrama, Serafin Olave kalean; eta Ansoleaga, izen bereko kalean. Horrela, guztira, 252 toki dira, 108 apartamentu bikoitzetan eta banakako 36 apartamentutan banatuak. Programa honetako apartamentu guztiak 35 eta 37m² artekoak dira, eta logela bat, sukaldea txertatua duen egongela bat, bainugela eta trastelekua dituzte.

Etetiarrek Iruñeko auzokideak dira, 65 urtetik gorakoak, autonomia pertsonala dutenak eta etxebizitza-arazoak dituztenak. Auzo-unitateak arduratzen dira toki-eskariak kudeatzeaz eta kasu bakoitzaren azterketa egiteaz. Udalaren programan

sartu orduko, hainbat langilek artatzen dituzte egoiliarak: zehazki, familia-langile batek, eraikin-arduradun batek -mantentze-lan txikiatarako-, eta gizarte-langile batek -hainbat alderdiz arduratzeko, hala nola egoiliarak zerbitzuan sartzeko eta hautatzeko sistemaz-.

Programan mugikortasun handia izaten da, egoiliarrek beren kabuz baliatzeari uzten diotelako, haien familiekin bizitzera itzultzen direlako, zahar-egoitzetara joaten direlako edo hiltzen direlako. Toki libreak eskatzaileen itxaron zerrenda baten arabera banatzen dira, puntuazioarekin bat. Apartamentuak hutsik gelditzen direnean, Eraikuntzako Lantegi Eskolako ikasleek eta Gizarte Enplegu Babestuko langileek berritzen dituzte. 2006tik 2012ra, Eraikuntzako Lantegi Eskolak, adibidez, Txoko Berriko 36 apartamentuetako 12tan esku hartu du.

- Etxebizitza komunitarioa

Sarasate pasealekuan kokaturiko etxebizitza komunitarioa 65 urtetik gorakoendako etxe kolektibo bat da. Erabiltzaileek beren kabuz moldatzeko maila ona izan behar dute (bai pertsonalki bai sozialki) eta ezin dira beren etxeetan bizi, segurtasun ezak edo bakardade-arazoez eraginda. Laguntza jasotzen dute elikadura- eta garbiketa-lanetarako, eta jarraipen pertsonala egiten zaie. 2012an, 8 egoiliar zeuden.

Haurrei eta familiei laguntzeko programa

Oinarritzko laguntzako programa honek haurren babesgabetasunei aurrea hartu nahi die; hartara, babesgabetasuneko arrisku-egoera arinean eta ertainean dauden adingabeen familiak ikertu, baloratu eta haietan esku hartzen dute. 2012an, 563 familia eta 650 adingabe artatu zituzten, hau da, 2011n baino % 60 familia gehiago.

Taldeko profesionalek familiarekin batera kasu bakoitzean ezarri beharreko plana prestatzen dute, egoera bakoitzean zer helburu, jarduketak eta baliabide aplikatu behar diren zehazteko. Programak, era berean, hiriko haurren eta nerabeen egoera





	2008	2009	2010	2011	2012
Artatutako familiak	220	219	217	338	563
Artatutako adingabeak	412	405	397	565	650

etengabe ikertu eta aztertzen du, Nafarroako Gobernuak Adin Txikikoak Babesteko ataleko taldeekin elkarlanean.

- Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua

Zerbitzu hau berariazko baliabide bat da, lehiaketa publiko baten bidez kanpo-entitate batek kudeatua, haurren eta nerabeen garapena edo ongizatea eragotzen duten babesgabetasuneko egoeretan esku hartzeko, adingabeen etxean bertan. 2012an, 106 familietan (202 heldu eta 211 adingabe) esku hartu zen, aurreko urtean baino sei gehiagotan.

- Prebentzio komunitarioarako taldeak

Esparru honetan prebentzio komunitarioko taldeak ere badaude, haurrei eta gazteei zuzendutako prebentzio unibertsal eta selektiboko jarduketak egiteko. Arrotxapea, Txantrea, Sanduzelai, Alde Zaharra eta Etxabakoitz auzoetan kokaturik daude. 2012an, 0 eta 19 urte arteko 3.011 lagunengana iritsi ziren, hau da, 2011n baino % 0,9 gehiagorengana. Kopuru horrek adin-tarte horretako biztanleria osoaren ia % 16,96 egiten du.

Prebentzio selektiboari dagokionez, 2012an esku hartzeek % 28 egin zuten gora, 1.888 parte-hartzaile izan baitziren banakako eta taldekako laguntzan, hau da, zerbitzu horretako jardueretan aurrez aurre parte hartzen duen biztanleria osoaren % 62,70 (aurreko urtean, aldiz, % 46,6 izan zen).

Gizarteratzeko programa

Gizarte Ongizatearen laugarren programaren helburua da bazterturik gelditzea arriskuan edo bazterturik dauden pertsonen gizarteratze-bidea sustatzea; hartara, banakako gizarteratze-ibilbideak diseinatzeko dira, eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzen dute. Halakoetan,

elkarrekin esku hartzen dute gizarte-laneko eta gizarteratze arloko teknikariek, eta Gizarte Enplegu Babestuekin eskuz esku eta koordinazioan lan egiten dute.

2012an, auzo-unitateetan, banakako laguntza 18 eta 65 urte arteko 602 laguni eman zitzaion. Era berean, hainbat ikastaro eman dira, prestakuntza arloan eta eguneroko bizitzarako trebetasunak joratzeko, eta horrekin batera, aholkularitza psikologikoa eskaini zaie, hala profesionalai, nola programaren erabiltzaileei.

Zerbitzu Espezializatuak

Oinarritzko laguntzaren osagarri, Iruñeko Udalak bestelako laguntza-bitartekoak ere baditu, Auzo Unitateetako programekin eskuz esku lan egiten dutenak.

Gizarte Enplegu Babestua

Nafarroako Gobernuarekin batera, Iruñeko Udalak programa bat finantzatzen du, gizarte-zailtasunean dauden pertsonak aldi baterako kontratatzerantz bideratua; era berean, pertsona haien gaikuntza pertsonala sustatzen du bai enpleguaren bidez bai laguntza-sisteman sartzearen bidez. 2012an, 80 lagun egon ziren kontraturik, urtebetez aritzeko, eta 187 egon ziren uneren batez kontraturik urtean barrena.

Udal-programa honek urtebeteko lana eskaintzen die lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonai, gehienez ere urtebeterako, banakako gizarteratze-ibilbide baten bidez. Hona programaren hartzaileak: prestakuntza eskaseko gazte eta helduak, gutxiengo etnikoak, egoera ekonomiko txarra duten edo gizarteratzeko eta lanera bideratzeko prozesuetan ari diren pertsonak, familia-ardurak dituzten emakumeak, etab. 2012an egindako lanen artean besteak beste

daude Gayarre Antzokiko kamerinoak, bainu-gelak eta esparru komunak zaharberritze-lanak, hainbat ikastetxe eta ikastola, Mendillorriko trinketa eta San Frantziskoko Liburutegia margotzeko lanak edota bizikletak aparkatzeko euskarriak egitea.

Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)

Urte osoan, 582 emakumek jaso zuten laguntza; haietatik, 273 berriak izan ziren (256 emakume eta 17 gizon), eta 309k, berriz, lehengo urteetan irekitako espedienteak zituzten. Kasu berrien ehunekorik handiena, % 22,2, Arrotxapeari dagokio, eta txikiena, % 0,77, Mendebaldeari. Taldeko profesionalak, guztira, banakako 2.069 arta egin zituzten 2012an (horietatik 1.832 kontsulta programatuak izan ziren; 81, kontsulta ez-programatuak; 111, telefonozko kontsultak, eta 45, larrialdiko artak).

Udal Laguntza Zerbitzu hau, beren egoera dela-eta, babes eta laguntza sozial, juridiko eta psikologiko berezia behar duten emakumezkoendako arreta osoko zerbitzua da. Horren baitan, lehentasunezkoak jotzen dira hala biktimak babestu eta bere onera ekartzera bideratutako esku-hartzeak nola indarkeriazko egoerei aurrea hartzerako bideratutakoak. Zerbitzu honetako profesionalen iritziz, gizarte- eta ekonomia-egoera larritu izanak eta Nafarroako Gobernuak gizarte-laguntzak eskuratzeko lege-aldaketek eraginda, okerrera egin dute emakumeen bizi-baldintzek eta haien bazterkeria-mailak gora egin du.

2012an, zertxobait igo ziren Zerbitzuak artatutako indarkeria-kasuak. Izan ere, kasu horiek artaturiko emakumeen arazoetan % 39 egin zuten 2011n, eta 2012an, berriz, % 45. Hona hemen kasu berrien datuak, indarkeria tartean izan den ala ez kontuan harturik.

Azken urteotako joerari jarraiki, kasu berriekin egindako arta gehienak genero-indarkeriari lotutako arazoei dagozkie (% 45), bai eta bikote-gatazka larriei ere (% 37). Horrek esan nahi du esku-hartzeen % 82tan aholkularitza eta laguntza eman direla genero-

	Espainia		Atzerria	
	%		%	
Indarkeriarekin	60	% 44,79	54	% 44,26
Indarkeriarik				
Gabe	74	% 55,22	68	% 55,74
Guztira	134	% 100	122	% 100

indarkeriak eragindako kaltea arintzeko eta gainditzeko, eta arriskurik handieneko egoeretan indarkeria hori ager ez dadin prebenitzeko.

2012ko arta berrien erdia baino gehiago (% 51,60) espainiar nazionalitateko emakumezkoek egokitu zitzaizkien. Atzerritarren artean, gehienak Hego Ameriketakoak dira (% 60,6), 20 eta 39 urte artekoak (guztien % 56,4), batxilergoko edo Lanbide Heziketako prestakuntza-maila dutenak (% 38,4).

Familietan Esku Hartzeko Zerbitzuak 53 emakume eta 75 adingabe artatu zituen 2012an. 2010az geroztik, Zerbitzuak, beste bi programa eskaintzen ditu: *Aukera eman zure buruari eta Emakume haurdunak*; 2012ko arten estatistika-ondorioetarako, 45 emakumezko eta 58 adingabe *Aukera eman zure buruari* programa zaharretik datoz, eta 8 emakumezko eta 17 adingabe, berriz, jada ez dagoen *Emakume haurdunak* hartatik. Bien artean, hilean, batez beste, 29 emakumezko eta 42 adingabe artatu zituzten.

Zerbitzu hau gizarte-zailtasunean dauden emakumeei eta haien seme-alabei zuzendutako programa bat da, betiere gizarte eta hezkuntza arloetan laguntza eta esku-hartze integrala behar dutelarik. Programan sartu aurreko balorazioa EULZeko taldeak egiten du. Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua emakumeen etxeetan bertan aritzen da (% 34), edota Udalaren ostaluetan (% 66). Udalak, 2012an, 13 udal-apartamentu izan zituen erabilgarri Merced kalean eta San Pedron, eta haien erabilera, batez beste, % 94,23 izan zen. Egonaldia, batez beste, ia 10 hilabetekoa izan zen (9.8).





Kasu berrien banaketa, kasu-tipologiaren arabera. 2012. urtea

EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	%	
Genero-indarkeria	114	0	114	% 44,53
Genero-indarkeria arlo pribatuan	87	0	87	% 33,98
Genero-indarkeria arlo publikoan (jazarpena, sexu-erasoa, emakume-salerosketa)	3	0	3	% 1,17
Elkarrenganako indarkeria	6	0	6	% 2,34
Familia barruko indarkeria	18	0	18	% 7,03
Bikote-gatazkak	92	8	100	% 36,63
Seme-alabatasuna, eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak.	36	2	38	% 13,92
Gizarte-zailtasuneko egoera	53	1	54	% 12,38
Beste zenbait	29	7	36	% 13,19
Daturik gabe	1	0	1	% 0,37
DIAGNOSIAK, GUZTIRA	325	18	343	
ESPEDIENTEAK, GUZTIRA	256	17	273	

Haur eta Nerabeendako Laguntza Taldea

Programa espezializatu honek eskuz esku lan egiten du lehen laguntzako haur eta familien programarekin, programa horrek bideratzen baititu talde honetara babesgabetasuneko arrisku-egoera ertainean dauden haurrak, edota oinarritzko laguntzak behar bezala artatu ezin izategatik bestelako esku-hartzeak behar dituztenak. Bere baitan etxeko Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua bilduta dago. 2012an, 34 familia eta 84 adingabe artatu zituen; aurreko urtean, berriz, 30 familia eta 59 adingabe.

Enplegurako Prestakuntza

Zailtasun erantsiren bat duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea da Gizarte Ongizate eta Berdintasun Alorreko Enplegurako Prestakuntza-programaren eginkizuna. Hartara, pertsona horien lanbide-gaikuntza eta lan-merkatuak balioesten dituen gizarte- eta norberaren gaitasunak garatzen dira; hori zenbait zerbitzutatik egiten da. Proposamenetan, guztira, 700 lagunek parte hartu zuten.

Lantegi Eskolak

Udalak, 2012an, Eraikuntzako eta Zaharberrikuntzako Lantegi Eskola eta Arantzadiko Parkea Lantegi Eskola mantendu zituen. Biak ere Udalak finantzatzen ditu, Europako Gizarte Funtsekin, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioarekin eta Nafarroako Gobernuarekin Enplegu Zerbitzuarekin batera.

16 eta 24 urte bitarteko ikasleak dira. Guztira, 3.600 prestakuntza-ordu jasotzen dituzte, bi urtean banaturik, aurreko 6 hilabeteetan prestakuntza-beka baten bidez, eta gainerakoa, prestakuntzarako kontratu baten bidez, zeinaren bitartez lanbide arteko gutxieneko soldataren pareko lansaria jasotzen baitute. Lantegi Eskoletako ikasleek, gainera, hiri osorako onak diren ekimenetan lan egiten dute (gizarte ekintza). Lantegi Eskolen egungo edizioa 2011ko irailean hasi zen eta 2013ko abuztuaren 31n bukatu da.

Aurtengo jardueren artean ondokoak dira nabarmentzekoak: Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren artean joan den martxoan sinatutako hitzarmen bat Donejakue Bidea eta abelbideak

PROGRAMA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA 2012an
-----------------	---

Eraikuntzako LE	60
Arantzadiko LE	42
GUZTIRA	102

moldatzeko; udal-hilerriko inguruz inguruko horma zaharberitzeko lanak (Hargintzako lantegia); Ezkaba mendiko basogintza-lanak, apirilaz geroztik eginak (Basogintzako espezialitatea); hil horretan berean, Udaletxeko forjatzeko ateetako bat zaharberitzeko lana (Soldadurako lantegia); edo, irailaz geroztik, hiru kainoi-oinarri planifikatu eta eraikitze lanak, hiriko barruti gotortuko zenbait esparrutarako (Zurgintzako lantegia).

Eraikuntzako eta Zaharberrikuntzako Lantegi Eskolak hainbat espezialitate eskaintzen ditu: igeltserotza-zaharberrikuntza eta berrikuntzak (30 toki), zurezko zurgintza-muntaketa eta lehengoratzeta (15 toki), eta hargintza eta ondarearen kontserbazioa (15 toki). Arantzadiko Parkea Lantegi Eskolan ikasleak ondoko alorretan prestatzen dira: basogintza-lorenzaintza (14 toki), soldadura (14 toki) eta iturgintza zein eguzki-instalazio termikoak (14 toki).

Enplegu Lantegia

Iruñeko Udalak Enplegu Lantegi bat garatu du azaroaren 21etik 2013ko maiatzera bitarte, 25 urtetik gorako 15 lagunekin. Pertsonak haien etxebizitzetan eta erakunde sozialetan artatzeko gaikuntza teknikoak lortzea, horra lantegiaren helburua, parte-hartzaileen laneratzea erdieste aldera eta zainketa-lanen kualifikazioa hobetzen laguntze aldera.

Lantegia prestakuntza- eta enplegu-programa misto bat da, Europako Gizarte Funtsak, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatuak eta Iruñeko Udalak sustatuak. Langabeek, prestakuntza-kontratu baten bidez, 900 orduko prestakuntza teoriko eta praktikoa jasotzen dute, Errepertorio Nazionalaren baitan dauden

ondoko Profesionaltasun Ziurtagiriak lortzeko: mendekoendako gizarte- eta osasun-arta erakunde sozialetan eta pertsonendako etxez etxeko gizarte- eta osasun-arta. Praktika-denboraldia ASIMEC enpresa publikoan, AZVASE enpresan eta mendekoendako, helduendako edota desgaitasunen bat duten pertsonendako egoitza-zentroetan egiten da.

Arestian aipatutako ziurtagirietarako prestatzeaz gain, prestakuntza osagarria ere ematen da ondoko alorretan: Enpleguaren Bilaketa Aktiboa eta autoenplegua, arriskuen prebentzioa, aukeraberdintasuna, elikagaiak manipulatzeko txartela eta alfabetatze informatikoa.

Langabeendako Prestakuntza

Iruñeko Udalaren Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuak lanerako prestakuntza-jarduketak egiten ditu langabeentzat eta helburu du horiek lanera bideratzea. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak homologatutako prestakuntza-zentroa denez, Iruñeko Udalak Profesionaltasun Ziurtagiriak eman ditzake. 2012an, 4 ikastaro eman ziren, eta guztira, 74 parte-hartzaile izan ziren.

Batetik, jatetxe-tabernarako hiru ikastaro egin ziren. Ikasleek sektoreko enprekin eta beste udal batzuekin sinatutako hitzarmenen bidez egin zituzten Profesionaltasun Ziurtagiriko praktikak. Bestetik, lorezaintzako, zeinak koloretako 17 lorategi-ontzi egin zituen, denak zurezkoak eta lur-rean ainguratuak, Cardenal Ilundain Ikastetxe Publikoaren ametsa betetzeko: hiri-baratzetako bat izatea.

Ikasleek, gainera, enpleguaren bilaketa aktiboan jaso dute prestakuntza, bai eta bezeroarekiko arretan eta autoenpleguan ere. Lau prestakuntza-ekintzak 2012ko bigarren seihilekoan egin ziren, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzaturik.

Espetxeko Emakumeen Moduluko Lantegiak

2012an, Iruñeko Udalak prestakuntza-ekintza bat antolatu, koordinatu eta finantzatu du, martxotik





abendura, Iruñeko Espetxeko emakumeen moduluan. 23 emakume preso aritu ziren Edurne Sánchez moda-diseinatzaileak 102 orduz emandako Kustomizazio Lantegian.

SINERGIA 2 Proiektua

Jarduketa esperimental hau 2012an egin zen lehen aldiz, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin egindako hitzarmen baten bitartez. Zailtasun bereziak dituzten langabeen prestakuntzaz eta laneratzeaz arduratzen da bere osoan, lau arlootan, zehazki: komertzio-dendaria, lorezaintza, iturgintza eta jatetxe-taberna. 62 laguni zuzendua, prozesuaren bukaeran, haien % 46k (28 lagun) lana aurkitua zuen. Espezialitatez espezialitate, Komertzio-dendaria prestakuntza-espezialitateak izan zuen laneratze-indizerik handiena.

Langabeak kontratatzea, interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak egiteko

Prestakuntza eta enplegua bilatzea sustatzeaz gain, Udalak langabeak kontratatzen ditu zuzenean ekainetik urrira interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak egiteko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntzari esker. 2012an, 24 langabe kontratatu zituen; programaren xedea da lanbide-gaitasunak eskuratuta enplegarritasuna hobetzea.

2012an, bi proiektu egin ziren, Moderna Planaren barruan, eta 10 lagun aritu ziren. Proiektu horiek direla eta, Udala 2012an Moderna Planaren bi zigiturekin saritu zuten. Batetik, Prestakuntza Lokalak Moldatzeko lanak egin ziren Errotazar kalean (hegoaldera begira dauden esparruen birbanatu ziren, ikasgelak eta lantegiak sortzeko, mendekoak etxean eta erakundeetan artatzeko Profesionaltasun Ziurtagirirako ematen diren prestakuntza-ekintzetarako); bestetik, komunak berritu ziren, sexuen arabera bereizteko eta irisgarritasun unibertsalerako araudira egokitzeko, eta era berean, profesionalendako hainbat langela moldatu eta oztopo arkitektonikorik gabeko sarrera berri bat egin zen.

Gainera, beste 14 lagunek (arduradun 1, 11 peoi eta 2 hezitzaile) kasuan kasuko udal-zerbitzuak laguntze aldera, hainbat zerbitzu egin zituzten: hilerriko lorekoroak birziklatzea, hirian aparkatzeko tokiak margotzea, garbiketa lanak, nekazaritza-lan osagarriak eta zakurrendako esparruak egokitzea.

Bazterketa Handia Artatzeko Programak

Etterik Gabeko Pertsonak Artatzeko Zentroa

Etterik Gabeko Pertsonak Artatzeko Zentroak hirian ibiltari dabilzan pertsonendako aterpetxe bat dauka, eta, horrekin batera, jantokia, zentro okupazionala, arropa-garbitegia eta Iruñean erroldaturik egon eta

Enplegurako Prestakuntza Programaren Datu Orokorrak (2008/2012)

	2008	2009	2010	2011	2012
Lantegi Eskolak	102	102	102	102	102
Enplegu Lantegia	—	—	15	15	15
Espetxeko Prestakuntza- ikastaroak eta Lantegiak	165	260	232	189	97
Programa Esperimentalak (Sinergia 3)					62
Gizarteratze eta Laneratze Taldea (GLT)	305	375	520	475	400
Interes Orokorreko eta Gizarte Intereseko lanak	21	19	28	19	24
Onuradunak, guztira	593	756	827	800	700

gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonak iraupen ertaineko egonaldian hartzen dituen programarako gunea. Zentroan ostatu, higie-ne eta elikadura-arloko premiak asetzen dira, aholkularitza eskaintzen da, eta erabiltzaileek lantegi okupazionalera joan eta garbiketa- eta jantoki-lanak egin behar dituzte.

Pasadizokoendako aterpe-eremua 25 lagun hartzeko dago prestatua, eta Iruñean erroldaturikoendako eremua ere 25 lagun hartzeko. Zentroak eskaintzen dituen 50 tokiak beteta daude urteko ia egun guztietan, eta neguan toki gehiago eskaintzen dira. Temperatura 3 gradutik jaisten denean, izan ere, *Hotzaren aurkako protokoloa* abiarazten da, eta programan ohiko eran sar ez daitezkeen lagunak –baldintzak betetzen ez dituztelako, zehapena jasota daudelako edota egonaldi-denborak agortu zaizkielako– artatzen dira. 2012an, protokoloa 73 gautan abiarazi zen.

2012an, guztira, 1.902 lagun artatu zituzten, hiru programen bidez. Iruñean erroldaturikoei zuzendutakoak 54 lagun artatu zituen (haietariko 12, emakume, hau da, % 22,2); pasadizokoei zuzendutakoak, 1.710 (haietariko 173, emakume, % 10,11), eta Hotz Boladaren Protokoloak, 138 lagun (guztira, 567 arta egin ziren gabe). Nabarmendu behar da lehen bi programetan % 50 eta % 49,

hurrenez hurren, espainiar nazionalitateko pertsonak izan zirela. Pasadizokoen artean, 66 nazionalitate desberdinetako jendea dago.

Zerbitzu sorta osatzeko, *Arreta, kalean* Programak 161 pertsona desberdin artatu zituen. Beraz, arta kopurua handiagoa izan zen, litekeena delako pertsona batzuek programa batean baino gehiagotan arta jaso izana.

Oscus 0,50 udal-jantokia

Iruñeko Udalaren udal-jantokiak (Navarrería kalea, 31) 234 lagun desberdin artatu zituen 2012an eta okupazioa, batez beste, % 80 izan zen. 2011n baino 53 lagun gutxiago izan ziren, baina otordu gehiago zerbitzatu ziren erabiltzaile bakoitzeko; horrek esan nahi du mendekotasun-egoerak luzatzen ari direla.

Zerbitzua diru behar larrian dauden 18 eta 65 urte arteko pertsonen zuzendua dago. Zerbitzuaren erabiltzaileen profila hau da: gizonezkoa, atzeritarra, administrazioetik inolako diru-laguntzarik jasotzen ez duena (artatutakoen % 61,52, hau da, 144). 2012an, Oscus 0,50era joandakoen % 48,7 espainiar nazionalitatekoak izan ziren, 2011n baino % 8,4 gehiago. Gainerako erabiltzaileen artean, 25 nazionalitate ageri dira, eta jende gehien biltzen duena marokkoarra izan da (27 erabiltzaile).



Etterik Gabeko Pertsonak Artatzeko Zentroa *	2011. urtea	2012. urtea
Artatutako pertsonak	2.108	1.902
Pasadizokoak		
Artatutako pertsonak	1.658	1.710
Erroldaturikoak		
Artatutako pertsonak	54	54
Arreta, kalean		
Artatutako pertsonak	116	161
Autobus-txartelak	808	993
Hotz-bolada		
Artatutako pertsonak	106	138
Autobus-txartelak	131	222

*Pertsona batzuek programa batean baino gehiagotan jaso dute arta (egonaldia eta autobus-txartela, adibidez) edota hainbat denboralditan; horregatik da arta kopurua artatutako pertsona kopurua baino handiagoa.



Jantokiak euro baten truke -0,50 euro otordu bakoitzeko- bazkaltzeko eta afaltzeko aukera ematen die 50 erabiltzailerari. Hortik heldu zaio izena. Udalak 4,49 euro ordaintzen du bazkari bakoitzeko eta 2,69 euro afari bakoitzeko (BEZa kanpo). 2012an, La Caixak, bere gizarte ekintzaren bidez, 12.000 euroko diru-laguntza eman zion zerbitzuari. Sistema bonuen bidez kudeatzen da, eta bonuen iraupena Udaleko gizarte-zerbitzuek erabakitzen dute.

2012ko azarotik aurrera, zerbitzua asteko egun guztietara zabaldu zen eta afariak jantokian bertan jateko sistema ere antolatu zen, afaria jaso eta etxera eraman beharrean. Hori horrela da, salbu eta adingabeak dituzten familientzat, Ramadamaren kasuan (egutegi islamikoak hilabete horretan ezartzen duen eguneko barauarengatik) eta osasun-arazoak dituztenentzat.

Udal-jantokiak urteko egun guztietan eskaintzen ditu bere zerbitzuak, uztailaren 6tik 14ra bitarte izan ezik, 13:00etatik 15:00etara (bazkariak) eta 19:30etik 21:00etara (afariak). 2012an, bana beste, 72.6 zerbitzu banatu ziren egunero (41,6 bazkari eta 31,06 afari). Afarien batez bestekoak behera egin du, jantokian bertan afaldu behar dela ezarri ondoren.

Laguntzen eta hitzarmenen deialdiak

Diru-laguntzak, irabazi-asmorik gabeko entitate eta elkarteendako

Gizarte Ekintza. Iruñeko Udalak 45 proiekturi eman zien diru-laguntza. Proiektuok gizarte-ekintzako jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko 37 (70) elkarteek gauzatu zituzten eta Deialdiaren kontusailak guztira 284.000 euro jo zuen. Proiektuak, esaterako, gutxiengo etnikoekin, etorkinekin, toxikomanoekin, minusbaliatuekin, adingabeen mendekotasunarekin eta gizarte-boluntarioekin lotuta daude.

Aisialdi eta denbora libreko programa. Iruñeko Udalak 152.000 euro eman zien haur- eta gazte-elkarteei, prebentzio- eta sustapen-jarduketak haurren

eta gazteen aisian eta denbora librean bultzatzeko deialdian. Elkartek denetarik jarduerak antolatu zituzten, hala nola kanpaldiak, txangoak, eskola-laguntza, pintura-lantegiak, antzerkia, folklorea, ingurumena, kirola, etab.

Garapenaren aldeko Lankidetza Programaren baitan diru-laguntza hauek eman ziren::

- Unean uneko sentsibilizazio jarduerendako diru-laguntzak: 10 proiektu, guztira 9.600 euroz hornituak
- Garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuetarako deialdia: 19 proiektu, guztira 90.000 euroz hornituak
- Garapenaren Aldeko Lankidetza Proiektuetarako Diru-laguntzen Urteko Deialdia: 32 proiektu, guztira 754.988 euroz hornituak
- Hainbat urtetarako diru-laguntzen deialdia, garapen-bidean diren herrialdeetako toki-erakundeekin garapenaren aldeko proiektuak egiteko: aurreko bi urteetako 4 proiekturi jarraipena ematea. Diru-hornidura: 340.000 euro.
- Larrialdi humanitarioetan jarduketak egiteko diru-laguntzak: 7 proiektu, guztira 78.000 euroz hornituak

Diru-laguntzak Berdintasunerako Planarentzat.

Deialdi hau 96.000 euroz hornitua dago, eta irabazi-asmorik gabeko 21 entitateen proiektuak sustatzea du xede, Aukera Berdintasunerako Plana garatzeko programak gauzatze aldera. Besteak beste, NUPek, Amedn-ak, Alaiz Kolektiboak, Médicos del Mundok eta Andreak jaso zuten diru-laguntza.

Hitzarmenak

Gizarte Ongizate eta Berdintasun Alorrak, hitzarmenaren sinadura bitartez, gizarte-intereseko proiektuak garatzen dituzten elkarte eta entitate jakin batzuek diru-laguntza finkatu nahi du:

1. Nafarroako GGKEren Koordinakundea. Argibide-bulegoa finantzatzea. Hitzarmen honen helburu nagusia da Iruñeko herritarrei garapenaren aldeko lankidetzara eta heziketara bideratutako gaiei buruzko informazioa zabaldu, hobetu, hurbildu eta erraztea; eta, horrekin batera, GGKEren, elkarten eta

erakundeen arteko hurbilketa eta koordinazioa sustatzea, eta komunikaziorako zein elkarlanerako bide eta modu berriak bilatzea. 30.400 euroz hornitua zegoen; 2011n, aldiz, 38.000 euroz.

2. IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragilea. Emakumeen Dokumentazio Zentroaren eta Liburutegiaren jarduna eta mantentze-lanak 2012an bermatzeko. Dokumentu-funts horrek 10.500 liburu baino gehiago ditu. Zenbatekoa 31.500 eurokoa izan zen. Sinadura hori urtero berregiten da, 2006az geroztik.

3. Gizakia Helburu. Susperitu programarendako laguntza, nerabeei eta haien familiei laguntzeko, eta Egunekeko Zentroarentzat, alkohola eta estimulatuzaileak kontsumitzearekin lotutako drogamenpekotasunak dituzten pertsonak tratatzeko eta gizarteratzeko. 2012an, Udalak 30.000 euroko laguntza eman zuen.

4. Elikagai Bankua. Elikagaiak bildu, biltegiatu eta banatzea finantzatzen du, gizarte- eta ekonomia-egoera txarrak jota dauden Iruñeko herritarrei doan emateko. Udalak 25.000 euroz eman zituen; aurreko urtean, aldiz, 15.000 euro.

5. ADEMNA Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea Gaixotasun neurologiko honen afekzio-maila larria edo handia eduki eta eguneroko bizitzan moldatzeko beste pertsona batzuen laguntza behar duten pertsonen laguntzeko. 19.380 euro esleitu zitzaizkion, balorazioak, terapia-saiotzak, solasaldiak, lantegiak edo etxeko etxeko bisitak egiteko.

6. REAS Nafarroa. Fiare Banka Etikoa herritarren artean bultzatzen laguntzen du, solasaldien bidez eta informazio-materialak argitaratuz. Udalak 6.000 euroko ekarpena egin zuen, 2011n bezainbeste.

Familiendako diru-laguntzak

Gizarte Ongizate eta Berdintasun Alorrek Familiendako diru-laguntzak ere ematen ditu. Izen generiko horren azpian bilduta daude Alor honetako zerbitzuek eta programek izapidetzen dituzten laguntza guztiak, krisi- eta gizarte-babesgabatasuneko egoeretan dauden pertsonen eta familien diruz laguntzeko.

1) **Diru-laguntzak, 0 eta 12 urte arteko adingabeak dituzten familiendako**, familia-, gizarte- eta lan-ardurak bateragarri egin ditzaten. Behar adina diru-baliabiderik ez duten edo familia-laguntzarik ez duten 0 eta 12 urte arteko adingabekoei laguntzeko zerbitzuak ordaintzera daude bideratuak. 2012an, 80.000 euroko aurrekontua izan zuten..

2) **Elikadurarako diru-laguntzak ikastetxeetan, lan-, familia-, gizarte- eta norberaren bizitza bateragarri egiteko**. Kontusaila 508.000 euroz hornitua zegoen.

3) **Diru-laguntzak, gizarte-larrialdian dauden pertsonendako eta familiendako**. 2012an, kontusail honen diru-hornidura 181.200 euro izan ziren, eta deserrotzea edo gizarte-bazterketa areagotu dezaketen salbuespenezko eta premiazko egoerak arintzeko balio du. Laguntzak mantenuerako, ostaturako eta etxebizitzarako dira, bai eta jendea gizarteratzeko eta lanera bideratzeko ere.

4) **Diru-laguntzak, errehabilitazio etxeetako egonaldiatarako**. Iruñeko Udalak, deialdi honen bidez, drogamenpekotasunak jota daudenei lagundu nahi die diruz, diru-bitartekorik izan ezean. Diru-laguntza jasotzen duten pertsonak Iruñean erroldaturik daude eta desintoxikazio-tratamenduan ari dira Nafarroako Gobernuarekin lankidetzak-hitza emena sinatuta duten zentroetan, hau da, Gizakia Helburu-n, Ibarren edo Antox-en. 36.000 euro bideratu ziren.

5) **Taxi Bonua**. 2012an, Udalak 140.000 euro bideratu zituen Nafarroako Elbarri Fisikoen Koordinakundearekin elkarlanean egiten den programa honetara, eta horri esker, hiri-garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasun larriak eduki eta errenta-maila jakin batzuk dituzten minusbaliatuek garraiobide egokitu erabil dezakete. Banakako laguntzak 65 eta 108 euro artekoak dira hilerok; 2009tik aurrera, dena den, % 20ko laguntza gehigarri bat aurreikusia dago (130 eurora bitartekoa), egunero lantokira edo ikastokira joateko taxa behar dutela frogatzen dutenendako.





Diru-laguntzen deialdia, laguntza motaren arabera.

Prestazioak	2008	2009	2010	2011	2012
Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak	141.469	148.705	150.156	119.783	181.200
Eskola-jantokiak	392.908	402.707	598.308	490.973	508.000
Familia ugarien eskola-jantokiak	156.065	118.661	174.905	135.664	180.000
Etxebizitza aldeko programaren alokairuak	99.900	129.057	175.000	175.000	170.000
Tratamenduak					
errehabilitazio-etxeetan	38.174	38.174	63.493	45.000	36.000
Haurrak artatzea (0-12 urte)	83.952	83.953	75.461	68.492	80.000
Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak	200.000	180.000	180.000	190.000	152.000
65 urtetik gorakoendako zinema	8.400	8.400	8.400	8.400	
Taxi bonua	140.480	172.175	170.474	181.516	140.000
GUZTIRA	1.261.348	1.281.832	1.426.197	1.414.828	1.447.200

6) Diru-laguntza, familia ugarien seme-alaben eskola-jantokia ordaintzeko. 2012an, 180.000 euroko laguntza banatu zen; aurreko urtean, aldiz, 135.664 euro.

7) Etxebizitzaren aldeko programa. Programak diruz laguntzen die azpi-etxebizitzan edo etxebizitza desagokian bizi, eta etxebizitza eskuratzea edo etxebizitzari eustea arriskuan jar dezakeen krisi-egoeran dauden familiei, alokairua hein batean ordain dezaten. Laguntzak gutxienez sei hilabetez irauten du eta, gehienez, bi urte. Aurrekontuak, guztira, 170.000 euro jo zuen, hau da, 2012an baino 5.000 euro gutxiago.